




ONDARRETA KO LORATEGIAK
F MAILA

ONDARRETA LORATEGIA, Z.G.



Egile eta data ezezagunak

Deskribapena

Antiguako oinezkoentzako tunelaren, hondartzara jaisteko arrapalaren (Eduardo Chillida pasealekuaren ondoan), hondartzaren (edo lorategiaren eta hondartzaren arteko hormaren), eta Satrustegi hiribidearen artean dauden lorategiak dira. Hondartza ertzeko pasealekua lorategi horien parte da.

Militarren maniobra eremua desafektatu eta kartzela Martutenera eraman ondoren gaitu ziren lorategiak. Lorategien ezarpena behar bezala osatu zen gaur egungo Ondarretako hondartzaren konfigurazioarekin, bien artean dagoen hormak bereizten dituen bi zatiek multzo bateratu bat osatuta.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen F babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez; edonola ere, hurrengo C atalean aditzera ematen diren irizpideak aplikatuko dira.
 - B. Elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
 - * Babestu egiten da lorategien konfigurazio orokorra, zuhaitz eta landare masekin, pasealekuekin eta abar.
 - * Babestu egiten dira: Ondarreta pasealekuko farolak; eserlekuak dituzten balaustradak; komun publikoetako balaustradak; gainerako jatorrizko hiri altzariak.
 - * Ez dira sestra gaineko eraikuntzak baimentzen.
 - * Gaur egun dauden zuhaitzak babesten dira, zuhaitz masa gisa oro har hartuta, eta ez banako zuhaitz gisa. Zuhaitz horien banako babes erregimena natura ondarea zaintzeko berariazko planaren edo proiektuaren emaitzazkoa izango da.